

txoritxoari mokoka

Ilobaren gutuna

Kaixo, izeko! Euskara irakasleak etxetik kanpoko norbaiti karta bat idatzi eta bidaltzeko agindu digu, eta horretantxe nabil. Zalantzaren bat geratzen baldin bazaizu, hitz egingo dugu igandean gutun honi buruz. Hasiko naiz ba... Jai egunetarako, eskolako lanez gainezka bidali naute etxera. Etxean ere lagundu beharko dut. Eta zuldar erraldoi bat eta kilo pare bat besterik ez ditut irabazi azken asteetan. Xoxik gabe nabilela, tia, eta gure etxeko itsulapikoa bileterik gabe berehala geratzen den kutxa-



EGUNKARIA
Unax Ugalde aktorea.

Amagoia Iban

zain automatiko horietako baten tankerakoa dela. Amaren kontratua laster amaitzen da gainera, eta ez daki berrituko ote dioten. Nagusiari garesti ateratzen omen zaio. Gure amari ez nonbait. Eta ET'Ten kontrako kartelak eskolan jarritz gero, Fernandoren bulegora bidaltzen zaituzte. Dena kaka zahar bat, kaka zahar guztiak bezala, paper zuri batekin garbitu beharrekoa. Eta *Sorginen laratza*-ko Unax Ugaldereen puzker-butroiak irabazi gabe geratu naiz. Diru polita irabaz nezakeen eskolan salduta. Baina tira! Beti geratuko zaigu udan lan egiteko aukera, adin txikikoak izanda ere. Hauxe dun hauxe destinu petrala! Bukatu da papera. Igandean hitz egingo dugu. Aio.

LABURAEAN

LA2 'LA NOCHE TEMÁTICA'

Bidaien inguruko saio berezia emango dute gaur gauean

La2 kateko *La Noche Temática* saioak *Señores viajeros* izenburua eramango du gaur, 22:30etik aurrera. Lehendabizi Steven Spielbergen *El diablo sobre ruedas* filma emango dute (publizitate gabe). Ondoren, bidaia mota eta bidaiariei buruzko dokumental bat eskainiko dute. Eta amaitzeko, *La invasión organizada* dokumental alemaniarra ikus ahal izango da; bertan turistaren figura aztertuko da.

T5 'PERIODISTAS'

Astlehenean hasiko dira emititzen telesaileko atal berriak

Atzo aurkeztu zuten Globo Media ekoiztetxeko *Periodistas* telesaileko zazpigarren denboraldia. Astlehene gauetan (22:00etan) emitituko dute telesaila, eta denboraldi honetan hiru aktore berri egongo dira: Isabel Aboy, Gines Garcia Millan eta Anibal Soto.

ETB1 'KIROLAK'

Euskal Herriko Itzuliko etapa guztiak zuzenean


Astlehenean hasiko da Euskal Herriko Itzulia, eta ETB1 kateak zuzenean emango ditu etapa guztiak (laburpen bereziak ere eskainiko dituzte gaueko 21:00etan). Fermin Aramendi eta Iñigo Aiestaranekin batera, Marino Lejarreta eta Txomin Perurena egongo dira etapetako kontakizuna egiten.

Aiara irati berri bat egiteko eztabaida

Gaur arratsaldean eztabaida irekia egingo dute Laudioko kultur etxean, Aiara bailarako irati berri baten proiektua finkatzeko.

ETB1. Gaur arratsaldeko 16:10ean hasiko da 'Sautrela' saioko denboraldi berria

Nazioarteko literaturari begira



EGUNKARIA

Bitoriano Gandiaga zenaren inguruko erreportaia emango dute gaur arratsaldean *Sautrela* saioan.

GAURKO SAIOA

Gandiaga eta Ramon Saizarbitoria

Bitoriano Gandiaga poeta-aren inguruko erreportaia emango dute gaur arratsaldean *Sautrela* literatur saioan. Gandiaga ezagutu zutenek bere bizitza eta lanaren inguruan hitz egingo dute. Bestetik, Ramon Saizarbitoria elkarrizketatuko du Hasier Etxeberriak; idazle gipuzkoarrak *Gorde nazazu lurpean* eleberriaz eta jaso berri duen Espainiako Literatur Kritikaren sariaz hitz egingo du. Bi atal nagusi horiez gain, Literatura Unibertsaleko pasarte hautatuak, aforismoak eta irakurtzeko liburuen gomendioak izango dira *Sautrela*-ko hirugarren denboraldiko lehenengo saio honetan.

Euskarazko literatura ez ezik beste hizkuntzetan egiten dena jorratuko dute

Urtzi Urkizu | DONOSTIA

Euskal Telebistako *Sautrela* literatur saioaren hamahiru atal berri ikus ahal izango dira gaurtik aurrera. Aurreko bi denboraldietan bezala, Hasier Etxeberria izango da saioko aurkezlea. Aurreko ataletan bezala, Donostiako Miramongo Parke Teknologikoan egingo ditu Etxeberriak aurkezpenak eta elkarrizketak. Kirmen Uribek eta Anjel Mari Elustondok landuko dituzte erreportaiak. Eta Bernardo Atxagak aholkulari izaten jarraituko du. Saioari erritimo bizia eman nahi diotela dio-

te arduradunek, eta telebista hizkuntza bereziki zaintzen saiatuko dira.

Idazleei elkarrizketak Euskal Herrikan

Sautrela saioa Orio ekoiztetxek ekoizten du, eta Martin Ibarbiak datozen atalen inguruko zenbait kontu aurreratu dizkio EGUNKARIARI. «Ildo beretik joango gara estiloz eta edukiz, baina kanpoko literaturari gehiago irekiko gara. Nazioarteko literaturari arreta handiagoa jarriko diogu, baita Euskal Herrian erdaraz idazten dutenei. Ez dugu nahi *Sautrela* soilik euskal

literaturaren ingurukoa izatea», esan du Ibarbiak.

Hainbat idazle elkarrizketatuko dituzte datozen asteetan, eta Euskal Herrikan ere aterako dira elkarrizketa horiek egiteko. «Aste Santuan Parisera joango gara, bi emakume lapurtarrekin hitz egiteko. Bat Marie Darrieusec idazlea da, eta bestea Delay Frantziako Letretako akademiakoa. Beste alde batetik, Antonio Tabucchi idazle italiarra elkarrizketatu nahi dugu; adituek Europako idazle garrantzitsuenekotzat jotzen dute. Harremanak izan ditut berarekin, eta baiezkkoa eman digu. Quim Monzo kataluniarra ere elkarrizketatuko dugu». Pixkanaka-pixkanaka ildo hori jarraitu nahi dutela esan digu Ibarbiak.

«Dena dela, saioa finkotu egin behar dugu. Eta aurreko denboraldian gauzak nahiko ondo joan zirenez, momentuz estilo berdinarekin jarraituko dugu», dio Orio ekoiztetxeko arduradunak. Abenduaren 30etik hona etenaldia izan du *Sautrela*-k, eta ezustekorik ez bada, udan atseden hartu eta udazkenean itzuliko da berriro.

Datozen asteetan elkarrizketatuko dituzten euskal idazleen artean Jon Alonso eta Pedro Alberdi daude. Gaztelaniako literatura ere aztertuko dute *Sautrela*-n, eta Baroja eta Unamunori buruzko erreportaiak egingo dituzte.

Saioko edukiak eta literatura-aren inguruko informazio gehiago www.sautrela.com webgunean aurki daiteke.